

Alberto Hajar Serrano

• MEXIKOKO EZKER DEMOKRATIKO HERRITARRAREN IDAZKARI NAGUSIA •

«Latinoamerikako ikuspegiaz erakundeen arteko elkartasuna bultzatu nahi dugu»

■ El Salvadorko iraultzaren inguruko lekukotasunak biltzen dituen liburua aurkezteko heldu da Alberto Hajar Iruñera. ■ Italiatik etorri da, erakunde politiko zenbaitek egindako kanpamentutik, eta inperialismoaren aurkako elkartasuna bultzatzeko idazkia ekarri du. ■ Liburuaren aurkezpena eginez eta Mexikoko gaur egungo egoeraren ikuspegi berria emanez, Euskal Herriko erakundeen elkartasuna bultzatu nahi du.

MEXIKOKO Ezker Demokratiko Herritarraren idazkari nagusia da Alberto Hajar Serrano eta iraultzaren alde lan egin izan du beti. Marcos Komandanteordearen irakasle izan zen, eta 1995ean Mexikoko Poliziak Chiapasko altxamenduan nahastu zuen. Mexikoko egoeraren berri emateko etorri da Euskal Herrira.

■ Zerk ekarri zaitu Iruñera?

Askapena eta SODEPAZ elkarteek gonbidatu naute, Mexikoko gaur egungo egoeraren berri emateko. Nik Latinoamerikan gaur egun dagoen egoera azaldu nahi diet bai erakunde politikoei baita gizarte erakundeei ere; Euskal Herrian beharrezko esperientzia historiko moduan aurkeztuko dut, guztion arteko elkar ulertzea areagotu eta bultzatzeko. Ekarpen hauek gerora gure erakundeen arteko elkartasun koordinatua sor dezaten espero dut.

Gainera, liburu bat ere aurkeztu behar dut, *Nuestras montañas son las masas* (Gure mendiak masak dira). Liburuak Salvador Cayetano Carpio Marcial Komandantea zenaren testamentu politikoa da.

■ Zeren inguruan dihardu liburuak?

Liburuak El Salvador-ko iraultzaren inguruko idazki eta dokumentuak biltzen ditu, Marcial Komandantearen iraultzaren inguruko testigantza; bere testamentu politikoa da liburuak.

■ Zergatik izan duzu liburua argitaratu eta zabalatzeko beharra?

Marcial Komandantea Latinoamerikako pertsonaia iraultzaile garrantzitsu eta ezagunenetakoa bat izan da azken urteotan. Askapenerako Herri Indarrak bere erakundeak eta bere bizitzako ibilbideak erakunde politiko-



JOXE LACALLE

entzat kritiko izan zen une bat izan zuen 1983. urtean. Horregatik, arazo honen larritasunagatik, erakunde politikoei liburuak baztertu egin dute.

1983. urtean urtean Ana Mari Komandantea erail zuten, Askapenerako Herri Indarren bigarren arduraduna, eta astebete geroago Marcial Komandanteak bere buruaz beste egin zuen. El Salvadorko erakunde politikoei eta Poliziak ez zioten arazo honi inongo garrantzirik eman.

Iraultza

«Erdialdeko Amerikako iraultzen ondorioak eztabaidatu behar dira, iraultzako esperientziaren zati direlako. Esperientzia hori krisian jarri behar dugu aurrera egiteko»

■ Zer nolako oihartzuna izan zuen gertakari horrek?

Erakunde politikoei apenas deus esan zuten, baina FLPko militante batek, Jose Antonio Morales Carbonellek, artikulu gogoangarria idatzi zuen. Gertatutakoaren inguruko kritika sakona egin behar zela esan zuen Morales Carbonellek, Erdialdeko Amerikako iraultzan eragin handia izan baitzuen eta latinoamerika osoan ere oihartzun handia izan baitzuen.

Nire ustez, Erdialdeko

Amerikako iraultza prozesuetako hizketaldi eta negoziazioen ondorioak eztabaidatu beharrean gaude, iraultzako esperientziaren zati baitira. Eta esperientzia hori krisian jarri behar dugu aurrera egin ahal izateko.

■ Zein harremana du liburuan jorratutakoak Mexikori buruz esango duzunarekin?

Liburuak Marcial Komandantearen esaldi bat du izenburu moduan, eta Mexikoko egoerarekin zerikusi handia du. Mexikoko Gobernuak paper estrategikoa bete du Marcial Komandanteak iraultzen heziketa deitzen zuen horretan. Mexikoko Gobernuak elkarrizketa eta negoziazio prozesuetara bultzatu ditu iraultzak, egoera kaltegarrietan beti. Eta mugimendu horien aukera eta asmo iraultzaileak zapaldu ditu.

■ Europara etorri aurretik argitaratu zen liburua; zer topatu duzu gero hemen?

Hemen egingo dudana bezala, liburuaren aurkezpena eta Mexikori buruz nire elkarteak duen ikuspegia adierazi dut. Lehenengo Umbrian egon nintzen, Italian, kanpamentu batean. Europako, Ekialde Erdiko eta Latinoamerikako erakunde iraultzaileetako kideak egon ziren, eta hitzaldi eta ekitaldi anitz egin genituen. Gainera, globalizazio kapitalistaren strategiari eta honi eman behar zaizkion erantzunei buruz eztabaidatu genuen. Eztabaida horietatik idazki garrantzitsu bat atera genuen, inperialismoaren aurkako elkartasun fronte bat eratzeko nahiarekin.

Gero NATOk Italiako iparraldean duen basea ikusi nuen, azken hilabeteotan horrenbeste erailketa eragindituena alegia. Eta urrundik izan arren, leku horretan kontzentratzen den botere kriminal guztiaren berri izan nuen.

Miren Iriarte
IRUÑEA